

# “Koldo Mitxelenaren errenteriatasunaren printzak”

Elixabete Perez Gaztelu



Omenaldia Koldo Mitxelenari Errenteriako Udalean, 1961ean.

**O**arso urtekaria Errenteriatik eta errenteriarrok egina dugu, eta Errenteria eta gure herriko gizon emakumeen inguruko berri emateko sortua da.

Oarso aldizkari hau bertan idazten duten gizon emakumeek egin eta egiten dugu eta errenteriatasun senak eta izpirituak bizitzen du. “Oarsoko harribitxiak” (Oarso 2011: 290).

Seguruenik denok sentitu eta ulertzen dugun, baina hitzez adierazteak lanak emango lizkigukeen *errenteriatasun* delako hori jende askok erakutsi eta erakusten duela bat etor gaitzke. Zaletasun edo maitasun hori erakusteko modu bakarra ez dagoela ere guztiok onartzeko modukoa bide da. Ildo bere-tik, ez dirudi zalantzan jartzekoa denik Koldo Mitxelenak ere *errenteriatasun sena eta espiritua* hitzez eta egitatez erakutsi zuela.

Inon lekurik badu, orrialde hauetan due-lakoan, gai horixe hautatu dut aurtengo urte-karirako Koldo Mitxelena Elissalt hil zela 25 urte betetzen diren honetan (1915.08.20-1987.10.11). Koldo Mitxelenaren errenteriatasunaren printzak, izpiak ekarriko ditut, iruditu baitzait gogoeta-gai egokia izan daitekeela mundu zabalean, jakintza alor batzuetan, ezaguna den gizon hark bere sor-terri txikiarekin zuen lokarria.

Lokarri horren hamaika mutur alde batera utzita (esate baterako, Mitxelenak argitaratue-tara murriztuta, ikustekoa da zenbatetan aipatzen dituen Errenteria eta errenteriarrek bere lanetan, gaia edozein delarik ere), nire ustez errenteriatasunaren erakusgarria den udal aldizkarietan parte hartzera mugatuko dut oraingo lana. Alegia, berriz ere<sup>1</sup> *Rentería* eta *Oarso* udal aldizkarietan Mitxelenak munduratuak hartuko ditut mintzagai.

## *Errenteriatasunaren printza idatziak*

Koldo Mitxelenak hamar artikulua argitaratu zituen aipatu bi udal aldizkarietan: bederatzi gaztelaniaz (Luis Michelenak sinatuak) eta bakarra euskaraz; iazko Oarson “harribitxi” saila estreinatzeko erredakzio batzordekoek begiz jo zuten “Aspaldiko berriak”, 1973koa, hain zuzen ere. Hamaikagarren lan bat ere haren izenean argitaratua dago Mitxelena hil eta bi urtetara, 1989an. Juan Carlos Jiménez de Aberasturiren eskariz

1. Hala diot Mitxelenaren heriotzaren hamargarren urteurrenean lan horiek berak hartu nituelako “Joan zatzaizkigu lurretik, baina ez gogotik, eta ez bihotzetik” (Oarso 1997: 16) ontzeko. Orduan, baina, batez ere Mitxelenak eginkizun ikusten zituen lanei, lanerako gonbitei, erreparatu nien.



**1961eko urtarrilaren 22an Errenteriako Udalean Koldo Mitxelena Euskaltzaindian sartu zela-eta egindako ekitaldia. Argazkian: Koldo Mitxelena mezatara doa, atzetik Antonio Arrue eta José Mª Lojendio dituela (euskaltzainak).**

Mitxelenak gaztelaniara itzuli eta iruzkindutako "Notas acerca de unos versos euskéricos" filologia lana da. Esan bezala, ez da Mitxelenak aldizkari-urtekari honetan argitaratzeko prestatutako lana; berrikusteko aukerarik ere ez zuen izan. Horregatik, uste dut azken lan hori ezin dela besteak bezala hartu.

Lan aspaldikoena *Rentería* aldizkarian argitaratua da, 1952an. Gainerako bederatziak *Oarso* urtekariaren bigarren epekoak dira: 1958tik 1964ra urtero artikulua bana argitaratu zuen (7 lan); 1973an arestian aipatu euskaraz idatzitako bakarra, eta, azkena, 1975ean<sup>2</sup>.

Lanok kokatzeko, esan dezagun Koldo Mitxelenak, oro har, lehen lana (gaztelaniaz) 1949an argitaratu zuela<sup>3</sup>, eta lehen euskal lana 1951n<sup>4</sup>, "Euskal literaturaren etorkizuna" gogoangarria. Bada, gai horrexek, euskal literaturaz, dihardu Mitxelenak herriko plazara ateratzeko lehen lanean, izenburuak ispiatzen duen bezala,

2. Juan Migel Lakunzak prestatutako publikazioan jasoa dagoen bezala, 1976tik 1980a arte ez zen *Oarso* kaleratu. 1980tik aurrera ez du etenik izan. 2007an argitaratu zuten CDa kontsulta daiteke.

3. Hobeto esateko, bi artikulua ("Notas de gramática histórica vasca" eta "Voces vascas. I. (*h*)egi, *tegi*. II. Vasco *azari*, *azeri* y *azenarius*. III. Sobre algunos elementos latino-románicos en vascuence y otras voces vascas") eta lau liburu-iruzkin argitaratu zituen urte horretan. Ez dezagun ahaztu, era berean, 1948ko martxoan atera zela kartzelatik bigarren eta azken aldiz.


4. Mitxelenak Filologia Klasikoko ikasketak amaitu zituen urtean, alegia.

"Los renterianos y la literatura en lengua vasca". Gero berriz ere hartuko dugu ahotan.

Lehenik eta behin azpimarratu behar da, lan guztiak hartuta, oso gutxitan agortzen duela Mitxelenak gaia Errenteriaren (eta/edo Oiartzungo ibarraren) barrutian; Mitxelenaren errenteriartasuna ezin da modu itxian ulertu, munduari, gizon-emakumeon barrengo kezkei bizkar emanez. Horren seinale da hamar lanotatik batean besterik ez dugula ikusi mugatze hori: bestelako arrazoiengatik ere berezia den 1973ko "Aspaldiko berriak".

Eta berezia dela diogu, batetik, euskaraz argitaratutako bakarra delako, eta bestetik gaia ere halakoa duelako: Mitxelenaren haurtzaro eta gaztaro herriko kirolak eta kirolzaleak. Hor ikas dezake irakurleak, besteak beste, 1936ko gerrateak zer kirol giro zapuztu zuen: zein kirol elkarte ari ziren lanean Errenterian (Lagun-arte, Euskalduna), Touring eta Rapid futbol taldeen sorrera, Eusebio Zubillagaren lana atletismoa herrian bultzatzeko, Mitxelenak Eusko Gaztedi Kirolzalean parte nola hartu zuen (atleta moduan ez, laguntzaile moduan)..., eta baita Donostia eta Irun "handiekin" –batez ere Gipuzkoako hiriburuarekin– Errenteriak beti izan dituen harreman gazi-gozen berria.

Gainerakoetan, era batera edo bestera, artikulua gaia txokokoa dirudien arren, Mitxelenak lortzen du gehienon eskura ez dagoena; hots, batere bortxarik gabe, berak ziokeen bezala, "bestela bezala", hizketan jartzea sorteri txikia eta bestelako gai zabalagoak, unibertsalak. Bestela esan, Mitxelenaren lanak Errenteria(r)en eta gizakiaren, munduaren arteko zubiak dira.



**Koldo Mitxelena Bartzelonako Unibertsitatearen Doctor Honoris Causa izendatzeko ekitaldia.**

Arestian aipatu dugun lehen lanean (1952ko "Los renterianos y la literatura en lengua vasca") jasotzen ditu XIX-XX. mendeetako Errenteriako letragizonen izenak eta egitateak. Hor daude bertsolariak: *Xenpelar*<sup>5</sup>, Bizente Retegi *Musarro*, Juan Kruz eta Jose Zapirain, *Saiburu*<sup>6</sup>, Jose Berra *Telleritxiki*, Juan eta Pedro Zabaleta; antzerkigileak: Ramon Ilarramendi, Juan Ignazio Uranga; genero batean baino gehiagotan saiatu zen Enrike Elizetxea; Bizente Olaziregi itzultzailea; poetak: Erramon Astibia *Errenderi Aba*<sup>7</sup>, eta buruen-buruenik, gaixo zegoen Koldobika Mitxelena haurrari "barne kantua", "euskal kantua" barrenean sentiarazten erakutsi zion Luis Jauregi *Jautarkol*.

Abiaturuko gaia "etxekoa" da, hortaz, Errenteriako garai horretako literaturagileak, baina begiak altxatzen ditu eta tokian tokiko mintzagai hutsa izango zela zirudiena zabaldu eta "unibertsal" bihurtzen du. Mitxelena artikulua honetaz baliatzen da esateko errenteriar horietaz hitz egin behar dela gure iragan hurbila direlako, eta hori kontuan hartu ezean ezingo dugulako ulertu nolakoak garen gu; azken buruan, haiek hazi eta hezi gaituzte eta haien ondorio baikara. Antzinate urrunak sortzen duen lilurak ez gintuzke itsutu beharko eta ez genioke utzi beharko galarazten eskura daukaguna estimatzea.

5 Mitxelenak, beste askok bezala, Petrirena deitura alboratu dio, oker, Petriarena behar du.

6 Mitxelenak ez du zehazten Lujanbiotarretako zein.

7 Errenteriako Udalak 2003an argitaratu zituen bere lan guztiak irudiz eta jatorrizko testuez hornituta CD batean.

"Los nombres y las cosas" (1958) hurren lanean ere, itxura batean, gai nagusia Errenteriako leku eta etxe-izenak dira: Torrekua, Morrontxo..., eta, barkatu neure opilari ikatza arrimatzen badiot, baita egun Iltzegileta idatziko genukeena ere: "En la calle Santa Clara, la primera o segunda casa contando desde el paso de Xamorako erreka se llamaba *Iltzeilleta* o la casa del constructor de clavos".

Hortxe, xehetasun horien ondoan, ezau-pidearen, zientziaren, humanitateen aldarria eta pentsamendu berehalako-utilitaristaren (zer esango luke egun?) kritika sendoa ere egiten du Mitxelenak herriko aldizkariko lanean.

"Semana Santa en Rentería" (1959). Errenteriako prozesioen kronika kritiko-satirikoa da ("nuestros pasos [ ] son en general bastante chapuceros", "no podemos mostrar más que un San Miguel y unos angelitos ya un poco deslucidos", "Ni Sevilla ni Valladolid tienen que temer competencia alguna, puesto que todo esto carece de atractivo turístico" ). Azal horrek, ordea, beste-lako mamirik ere gordetzen du: isiltasunaren balioa azpimarratzen du (berriz ere, zer esango luke gaur?) eta, batez ere, "betiko" diruditen ohitura itxuraz sendoen oinarri ahulak: egokitu beharra dago denboraren joanak irenstea nahi ez badugu ("lo que no va con el tiempo está llamado a menguar y a desaparecer más tarde o más temprano"). Mitxelenak bestetarako, euskararako, euskal kultura eta gizarterako desio zuen eguneratu beharra auzi hil edo bizikoa jartzen du mahai gainean.

1960koa da "Horca y cuchillo". Gustura irakurtzen omen duen Urdaburu mendizale taldeak

kaleratzen duen berriraperean Bidaztik argitaratu-tako "Hurcamendi" izeneko kontara aitzakia hartuta *urkabe*, *urkamendi*, *jaumendi* hitzen azterketa egiten du Mitxelenak, hasiera-bukaerak umore eta erudizio tantoz bustita egin ere: Celaren *Apuntes para una historia del garrote* aipatu eta eransten du: "Y no es que no pueda agregar alguna cosita, basada en una experiencia mucho más directa de la que probablemente posee don Camilo José". Bi heriotza zigorren mehatxupean bizi behar izan duenaren mizto zorrotza ari da hor hizketan, dudarik gabe.

Artikulu honetan ere Mitxelenak Erreteria ingurutik harantzago jotzen du bai bibliografia (*Gure Herria* Baionako aldizkaria, Rafael Mikoleta, Juan Venancio Arakistain, Pedro Manuel Soraluze, Manuel Lekuona, Ignazio Zumalde, Txomin Agirre aipatzen ditu), bai hainbat tokitako (Itziar, Izura, Zizurkil, Miraballes, Oñati) leku izenak ekarriz. Hitz batean esateko, (euskal) filologiaren erakustalditxo bat egiten du eta agerian ipini bakarra eta berezia dirudiena ez dela beti ez horren bakarra ez horren berezia.

"La ciudad perdida" (1961) lanaren gaia Oiaso, Oiartzoren kokaleku argitu gabea da<sup>8</sup>. Hala da, baina ez du aukera galtzen historia egiteko lekukoek (gauzek, aztarnek eta batez ere idatziek) duten garrantziaz mintzatzeko. Antzera gertatzen da "Iztueta y Rentería" 1963koan. Zaldibiarak *Guipuzcoaco Provinciaren Condairan* (1847) egiten dituen Erreteriarren aipamen ugarien berri emateaz gain, beste bi gai zabalago ere tartekatzen ditu Goiko kalekoak: bata klasiko izatearekin du zerikusia (Iztuetari gertatu zaió klasikoei oro har gertatzen zaiena; alegia, lanak aipatu bai, jendeak aipatzen dituela, baina inor gutxik irakurtzen dituela); bestea, berriz, ekologiarekin dago lotuta: Mitxelena kezkatua agertzen da bizimodu berria basoak galtzea ekartzen ari delako.

"Otra vez Cristobal de Gamón" 1964koa jatorrizko iturrietara jotzea, bigarren eskuko iturriek diotena besterik gabe ez sinistatzea, eta kritikaren beharraren gaineko ikasgai praktikoa da, ariketa ezinbesteko horrek gure iraganaren zati bati uko egitea balekar ere ("la crítica puede resultar más corrosiva que el sublimado y más destructora que la dinamita"). Mitxelenaren lan horretatik aurrera, ez dirudi aise eustea Cristobal Gamonen erreteriaratasunari, Juan Ignazio Gamon iturri "diskutiezinaren" nahiak nahi, eta esanak esan.

<sup>8</sup> Oiartzun ibaiaren bokale inguruan kokatzen du. Hiru urte lehenago, 1958ko "Nombres y cosas" izenekoan ere ahotan hartua zuen, arkeologiaren laguntza eske.

Bi lanetan besterik ez dugu ikusi udalerritik kanpoko gairen bati berariaz eskaintzea: 1962ko "Notas indiscretas" eta 1975eko "Desde Salamanca...".

Lehen artikulua gaia aldi berean da inongoa eta nonahikoa. Erreteriarekin nolabait lotzen badu ere –testuaren hasieran Xenpelar eta "ofizioak" bidelagun hartzen ditu eta adibide gisa darabilen pasadizoa ere berari Erreterian gertatua da–, artikulua mamiak eta helburuak Erreteria gainditzen dute: hizkuntzalariaren ofizioa zer den eta zer ez den argitzea da.

Bigarrenean, berriz, 1975eko *Oarso* urtekari osoa unibertsitateari eskaini zioten eta Mitxelenak ere bere alea bidali zuen lan– eta bizileku zuen Salamancatik. Euskal Herriko Unibertsitatearen premia aldarrikatzen du hor argi eta garbi Mitxelenak.

Egin dugu, honenbestez, Luis Michelena-Koldo Mitxelenak bere herrikideentzat idatzitako lanen errebasoa. Ikusi dugu erreteriar irakurleei ari zaienean, ia beti, herriko kontuez ari zaiela, bai, baina ez bakarrik herriko kontuez: horietatik abiatuta bestelako gai, kezka zabalagoei begira jartzen ditu irakurleak, edo/eta herriko pasadizoak gai zabalagoetan kokatuta, azalduta aurkezten dizkie.

Itxura batean, 1930ean *Oarso* aldizkaria sortu zutenean zuzendaritzak adierazitako asmoei jarraituz egindako lanek dirudite aztertu ditugun Mitxelenarenok.

En las páginas de *OARSO* se encontrarán, al lado de artículos e informaciones sobre la villa de Rentería, otros de carácter más universal, pero que estamos seguros que han de interesar al público renteriano. Y es que nuestra villa no es un islote solitario y aislado y nos afectan muchos de los problemas que aquí tienen repercusión. "Saludo" (*Oarso* 1930: 3 or.).

## *Azkena*

25 urte joan dira Koldo Mitxelena Elissalt Rafael Mitxelena xexteroaren eta Josepa Inaxi Elissalten (edo Elizalderen) semeak utzi gintuenetik. Haren gorputza ez dago gure artean, baina haren pentsamendu zorrotzak, adimen argiak eta erreteriaratasun ageriko eta zintzoak, idatzita utzi zizkigun lanak direla medio, guregan bizirik dirau.

Pentsatu dut moldezko etxe honetan egin niezaiokeen omenaldirik egokiena izan zitekeela saiatzea Mitxelenaren pentsamenduaren ildo batzuk agerira ekartzen eta erakusten Mitxelenarenean sorteria maitatzeak ez duela kide txokozalekeria itsua eta, batez ere, ez dituela aurkari ez zentzua ez unibertsaltasuna. Lortu dudan erantzutea ez dagokit niri.